

ERAIKUNTZA ETA ERAISPENERAKO HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO ORDENANTZA

1. titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua Xedea

Ordenantza honen xedea Bermeoko udal-mugartean eraikuntza eta eraispenerako hondakinen kudeaketa arautzea da, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispenerako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 DEKRETUAK xedatutakoarekin bat.

2. artikulua Aplikazio-eremua

Ordenantza honen preskripzioak Bermeoko udal-mugarte osoan aplikagarriak izango dira, eta bertan bizi edo egoitza duten pertsona fisiko nahiz juridiko orok bete beharko dituzte.

3. artikulua Definizioak

a) Etxeko eraikuntza- eta konponketa-lanen hondakinak. Obra txikietan sortutako zaborrak dira: adreiluak, hormigoia, lauza eta azulejuak, zura, plastikoa, igeltsu ijeztuko plakak, eta abar.

b) Hondakinak kudeatzeko pertsona edo erakundea: hondakinak kudeatzeko eragiketak egiten dituen pertsona edo erakundea, publikoa nahiz pribatua, eta baimen edo komunikazio bidez erregistratua, hondakin horien ekoizlea izan ala ez.

c) Hondakinen kudeaketa: hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea.

d) Bilketa: hondakinak jasotzea da. Alegia, hasierako sailkapena eta biltegitratzea egitea, gero tratamendu-instalazioetara garraiatzeko.

e) Tratamendua: balorizazio- edo deuseztapen-eragiketak dira, horien aurreko prestaketa barne.

f) Balorizazioa: hondakin batek helburu baliagarri bat izateko (nagusiki) egiten den eragiketa oro, bestela funtzio jakin bat betetzeko erabiliko liratekeen materialen ordezen moduan; edota hondakina funtzio hori instalazioan bertan zein oro har ekonomian betetzeko prestatzea. Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen, hondakin eta lurzoru



poluituei buruzkoaren, II. eranskinak balorizazio-jardueren zerrenda ez mugatua jasotzen du.

g) Deuseztapena: balorizazioa ez den beste edozein eragiketa da, nahiz eta bigarren mailako ondorio gisa, substantziak edo energia aprobetxatu. Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen, hondakin eta lurzoru poluituei buruzkoaren, I. eranskinak deuseztatze-jardueren zerrenda ez-mugatua jasotzen du.

h) Obra handiak: Obra handitzat hartuko dira indarrean dauden legeei jarraikiz proiektu teknikoa egitea eta onartzea eskatzen duten guztiak.

i) Obra txikiak: Indarrean dauden legeei jarraikiz, beren eraikuntza-sinpletasuna eta kostu txikiaren ondorioz proiektu teknikoa egitea eta onartzea eskatzen ez dutenak dira.

2. titulua - Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak

1. kapitulua. – Arau orokorrak

4. artikulua Sailkapena

1. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak honela sailkatzen dira: etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondorioz sortutako hondakinak, alde batetik, eta gainerako eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak, bestetik, obra handien ondoriozko hondakin gisa hartuko direnak.

2. Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondoriozko hondakinak izango dira etxebizitza partikular, saltoki, bulego edo zerbitzuen sektoreko higiezin batean egindako eraikuntzako edo eraispenerako edozein obran sortutakoak, obra hori teknika samurrekoa eta eraikuntzaren eta ekonomiaren aldetik sinplea bada, erabilera komuneko instalazioen tamaina nahiz erabilera edo etxebizitza eta lokalen kopurua aldatzen ez badu, eta profesional tituludunek sinatutako proiekturik behar ez badu.

3. Obra handien ondoriozko hondakinak aurreko definizioan sartzen ez diren guztiak izango dira.

4. Indarrean dauden legeek xedatutakoari kalte egin gabe, hauek obra handitzat hartuko dira beti:

- Hirigintza-obrak eta bide-azpiegiturak eraikitzeako obrak.
- Etxe berrien eraikuntza-obrak, eraikin hauen kasuan izan ezik: eraikuntzaren aldetik funts txikikoak eta teknikoki errazak izanik, bizitegiak (iraunkor nahiz aldi baterako) ez eraikin publikoak ez direnak solairu bakarrean garatuak.



- Lehendik dauden eraikinetan egiten diren esku-hartze guztiak, betiere arkitekturakonfigurazioa aldatzen badiete, hau da, erabateko esku-hartzea direnak edo, eskuhartze partzial izanik ere, kanpoko konposizio orokorrean, bolumetrian edo egiturazko sistema osoan funtsezko aldaketa eragiten dutenak, edo eraikinaren erabilera bereizgarriak aldatzea xede dutenak.
- Estalki eta aurrealdeak zaharberritzeko obrak.
- Katalogatutako eraikinetan edo lege-arau baten edo hirigintza-dokumentu baten bidez ingurumenarekin loturiko babesen bat nahiz babes historiko-artistikoren bat duten eraikinetan, erabateko esku-hartzearen izaera duten obrak, bai eta eskuhartze partzialeko obrak ere, babespeko elementu edo zatiak eraginpean hartzen badituzte.

5. artikulua Biltegiartzeko arau orokorrak

Zeharo debekatuta dago:

- Edozein obraren ondoriozko zaborrak etxeko edo merkataritzako hondakinetarako edukiontzietan sartzea.
- Bide publikoan hondakinak uztea, salbu eta hondakinak edukiontzi edo zakutan baldin badaude, eta horiek bide publikoa okupatu ahal izateko baimena lortu bada.

6. artikulua Obra-edukiontziak bide publikoan

1. Bide publikoa obra-edukiontzi edo -zakuekin okupatzeko, dagokion baimena eduki beharko da; era berean, okupazioari dagokion tasa aplikatuko zaio.
2. Bete ostean, edukiontzi edo zakuak material egokia duten olana edo oihalekin erabat estali beharko dira, hondakin-gaiak isurtzea edota haizeak horiek sakabanatzea ekiditeko moduan.
3. Lanorduetatik kanpo, bete gabe dauden obra-edukiontzi edo -zakuak ere estalita geratu beharko dira.
4. Debekatuta dago obra-edukiontzi edo -zakuak uztea, beren motaren arabera ezarria duten gehieneko betetze-maila gainditzen dutenean; hala, hondakinek lortzen duten altuerak ezin izango du alboetako altuera gainditu. Halaber, ezingo zaie jarri horien tamaina edo edukiera handitzeko elementu gehigarriak.
5. Modu berean, obra-edukiontzi edo -zakuetan ezingo dira hondakin hauek utzi: bide publikoko erabiltzaileei, auzoei edo kokatuta dauden ingurunearen babesak eta estetikar arriskutsuak zaizkien gaiak dituztenak.
6. Lanorduetan sartu beharko dira hondakinak edukiontzi edo zakuetan (8:00etatik 22:00etara), auzokoei eragozpenik sortu gabe.



7. Edukiontziak bide publikotik kendu beharko dira 15:00ak baino arinago bariku eta jai bezperetan.
8. Debekatuta dago bide publikoa edukiontzi edo zakuekin okupatzea asteburu eta jai egunetan.
9. Aurreko puntua betetzen ez dutenei zehapena ezarriko zaie, salbu eta, salbuespenegoerak direla eta, kasuan kasuko udal-zerbitzuen berariazko baimena lortu badute.

7. artikulua Garraioa

1. Obren ondorioz sortzen diren lur eta zaborrak garraiatzeko ibilgailuek bide publikoan beren edukia ez sakabanatzeko bete beharreko baldintza guztiak bete beharko dituzte.
2. Debekatuta dago garraiatzen diren materialek kamioiko kaxa, edukiontzi edo zakuaren goialdea gainditzea.
3. Hautsa ez sakabanatzeko, olanaz edo antzeko zerbaiten bidez estali beharko da karga.

8. artikulua Garbiketa

1. Bide publikoa garbi atxiki beharko da, prebentzio-neurriak eta, hala badagokio, zuzenketa-neurriak ere hartuta.
2. Bide publikoa zikindu lezaketen kamioien zirkulazioa eragiten duten obren kasuan, gurpilak garbitzeko ekipoak instalatzeko eskatu ahalko du udalak.
3. Era berean, bide publikoa erratzez garbitzeko betebeharra ezarri ahalko da, hura onik atxikitzeko.
4. Udalak beharrezko garbiketa-lanak subsidiarioki egiteko aukera izango du; kasu horretan, obrak sustatzen edo gauzatzen dituztenek hartuko dute beren gain zerbitzuaren kostua, izan litezkeen erantzukizunak gorabehera.

2. kapitulua. Obra handien ondoriozko hondakinak

9. artikulua Aplikatu beharreko araudia

1. Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien hondakintzat hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten hondakinen ekoizpena eta kudeaketa estatuko eta autonomiaerkidegoko araudi sektorialaren aurreikuspenen mende daude.



2. Hondakinon udal-kontrolarekin lotutako administrazio-fluxuaren kudeaketaren alderdiak arautzen dira atal honetan.

10. artikulua Aurretiko dokumentuak

1. Obra txikiak ez diren gainerakoei dagokienez, proiektu teknikoarekin batera hondakinak kudeatzeko azterlana aurkeztu beharko da; eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpen eta kudeaketari buruzko araudian xedatuta dago hori.

2. Azterlanean indusketa-lurrak eta horiek nora eramango diren ere aurreikusi beharko dira, bertan zehaztuko den kostuak materialon (naturalak zein poluituak) isurtegia barne hartzeko moduan. Horretarako, indusketa-lurren arteko balantzea egin beharko da, obran bertan berrerabiliko diren kantitateak adieraziko, eta kudeaketa-enpresa baimendu baten bidezko kudeaketa proposatuko da, obraren barruan konpentsatu ezin diren kantitateei dagokienez.

3. Era berean, eraikinak eta lurzorua despoluitzearen ondoriozko kostuak ere jaso beharko dira aurrekontuan.

4. Azterlana baloratzeko orduan, beharrezkoa izango da aurrekontuak, tratamendutarifatik datozen kostuak ez ezik, elementu hauen gastuak ere estaltzea:

- Obran bertan hondakinen sailkapena egitea, aplikagarria den araudiarekin bat.
- Biltegiatzea, babes-neurriak aplikatuta.
- Kargatzea eta amaierako helmugara garraiatzea.
- Hala badagokio, in situ balorizatzea horretarako ezarritako babes-neurriak hartuta, programa analitikoaren kostuak barne.
- Hala badagokio, prestakuntza- eta zaintza-kostuak, hondakinak kudeatzeko plana behar bezala ezartzeko.

5. Aurrekontuan ez da inola ere onartuko diru-sarrerarik egozte, esaterako, metalak saltzeagatik edo bestelako hondakinak balio positiboarekin kudeatzeagatik.

11. artikulua Hondakinak bereizteko eremurik eza

1. Espazio fisikorik eza edo segurtasun-arrazoiak tartean direla, teknikoki ezinezkoa bada hondakinak jatorrian bereiztea, hondakinen jabe den pertsonak horien banaketa egiteko agindu beharko dio hondakinak kudeatzeko pertsona bati, obrakoa ez den eraikuntza eta eraispeneko hondakinak tratatzeko instalazio batean.

2. Espazio falta justifikatzeko, ez da nahikoa izango egiaztatzea bide publikoan zein orubean ezinezkoa dela bereizi beharreko hondakin-mota adina edukiontzi kokatzea.

3. Eraikinaren egituraren edukiontziak instalatzeko aukera aztertu beharko da, bai eta edukiontzi mugikorak erabiltzeko ere. Edukiontzi mugikorak hondakin-mota bat baino



gehiago (bata bestearen ondoren, ez aldi berean) biltzeko edukiontzia dira. Hondakin horiek tarteko puntuetan gordeko lirateke aldi baterako, eraikineko solairuetan. Hondakinmota baten nahikoa bolumena metatzean, hondakin horiek guztiak edukiontzira eramango lirateke aldi berean, hura bete, jaso eta beste batekin ordeztuko.

12. artikulua Finantza-bermea

1. Hirigintza-lizentzia behar duten obren pertsona eta erakunde sustatzaileek, bai eta exekuzio-aginduak direla-eta horretara behartuta daudenek ere (premiazkoak direnean izan ezik), finantza-bermea eratu beharko dute, udalak obraren baldintzetan ezartzen duen zenbatekoko.

2. Ez dute bermerik eratu beharko EMAS Ingurumen Kudeaketa eta Auditoretza Sistema Komunitaria atxikitako erakundearen erregistroan izena emandakoek, indarrean dauden arauak ezarritako baldintzetan.

3. Bermearen zenbatekoa kalkulatzeko, hondakinak kudeatzeko azterlanean hondakinen kudeaketarako aurreikusitako kostua hartuko da oinarri, eta ondoren, 1,2 biderkatze faktorea aplikatuko zaio horri. Inola ere, ez da 250 euro baino txikiagoa izango (zenbateko hori urtero eguneratuko da, denbora-tarte horretan metatutako KPlaren arabera).

4. Bermearen helburua hondakinen kudeaketa egokia bermatzea da, edo, bestela, udalari aukera ematea modu subsidiarioan jarduteko behar adinako baliabideak edukitzeko. Hortaz, kudeaketaren kostu guztiak estaltzeko moduan kalkulatu beharko da zenbatekoa, barne hartuta bereizte-, biltegiratzeko-, garraio- eta tratamendu-kostuak.

5. Aurreko paragrafoan ezarritakoa bermatzeko, udaleko zerbitzu teknikoek hondakinak kudeatzeko azterlana ebaluatuko dute, eta, hala badagokio, sustatzailearen aurreikuspenen arabera dagokiona baino zenbateko handiagoa ezarriko du udalak, behar bezala arrazoituta.

6. Edonola ere, bermearen zenbatekoa eskatutakoa izan beharko da, harik eta udalak hura itzultzeko eskaeraren aldeko ebazpena ematen duen arte.

7. Bermea eskudirutan eratu ahalko da, zor publikoko baloreetan, abal bidez, kauzioaseguruko kontratu bidez edo zuzenbideak baimentzen duen beste edozein modu baliatuta. Edonola ere, gauzatzen den lehenengo errekerimenduan ordaintzekoa izan beharko da, ordena- eta eskusio-onurarik gabe.

8. Udalak, bermea eskudirutan eratu eta 20 urte igaro ostean, hura itzultzeko eskubidearen preskripzioa aldarrikatuko du, interesdunek jabetza-eskubidea gauzatzea eragiten duen kudeaketarik egiten ez badute.



13. artikulua Lizentzia behar duten obren amaierako kudeaketa-txostena

1. Pertsona edo erakunde sustatzaileak, obrak amaitutakoan, hondakinen kudeaketaren justifikazioa egingo du, eta ez da ziurtagiri partzialik onartuko.
2. Bermea itzul dakiola eskatzeko, eskaera bat aurkeztu beharko du berariaz, bai eta amaierako kudeaketa-txostena ere, obrako Zuzendaritza Fakultatiboak sinatua eta indarrean dauden arauak ezarritakoarekin bat egiaztatutakoa. Zuzendaritza Fakultatiboaren sinaduraren ordezkari zuzenean da lurzoru poluituen inguruko erakunde akreditatuarena aurkeztu, non eta ez den lurzorua polui lezaketan jarduerak jasaten ari diren edo jasan dituzten eraikinen eraispeneren kasua.
3. Bermea itzultzearen zilegitasuna oinarritzeko, Txostenak barne hartu beharko ditu hondakinak kudeatzeko azterlaneko aurreikuspenetan izandako desbideraketak justifikatzeko pertsona edo erakunde sustatzaileak egiten dituen argudiaketak.
4. Gainera, amaierako txostenak hondakinen xedeari lotutako ziurtagiri guztiak jasoko dituen eranskina izango du.
5. Hondakinen kudeaketaren ziurtagiriek egiaztatu beharko dute horien jatorria amaierako txostenaren xede den obra dela.
6. Dokumentu hauek onar daitezke egindako kudeaketaren justifikazio gisa:
 - a) Hondakinen kudeatzaileak igorritako ziurtagiria.
 - b) Hondakina kudeatzeko pertsona edo erakunde baimenduaren kontrol- eta arraipendokumentua.
 - c) Poluitu gabeko lur eta harriak betelan baimendu moduan entregatu izanaren frogagiria.
 - d) Xede den hondakinaren salmenta-faktura.
 - e) Emate-agiria.
 - f) Obran bertan balorizatutako poluitu gabeko lur eta harrien kasuan:
 - Lur horien aplikazioaren inguruko obra-zuzendaritzaren zinpeko deklarazioa.
 - g) Beste obra batzuetan balorizatutako poluitu gabeko lur eta harrien kasuan:
 - Kudeatzeko pertsona edo erakunde baimenduak igorritako ziurtagiria.
 - Kudeaketarako baimendutako pertsona edo erakundearen kontrol- eta jarraipendokumentua.



- Helburu-obraen proiektuaren laburpena, zeinean lur horien inportazioa zehaztuko baita.

h) In situ balorizatutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetatik datozen materialen kasuan:

- Kudeatzeko pertsona edo erakunde baimenduak instalazioan jardungo duen pertsona edo erakundea onartzeko emandako baimena egiaztatzea.
- Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren zinpeko deklarazioa, bertan balorizatutako materialak erabili direla adierazten duena.

i) Obran balorizatutako eta beste obra bati emandako materialen kasuan:

- Kudeatzeko pertsona edo erakunde baimenduak instalazioan jardungo duen pertsona edo erakundea onartzeko emandako baimena egiaztatzea.
- Helburu-obraen proiektuaren laburpena, zeinean material horien erabilera erregistratuko baita.
- Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren zinpeko deklarazioa, bertan balorizatutako materialak erabili direla adierazten duena.

7. Amaierako txostenak lurzorua polui lezakeen jarduera bat jasan duen edo jasaten ari den eraikina eraisteko obra baten aipamena egiten badu, lurzoru poluituen inguruko erakunde akreditatu batek izenpetu beharko du hura, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuarekin bat; dekretu horrek lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak akreditatzeko sistema ezartzen du.

8. Obrak hainbat eraikinen eraisketa barne hartzen duenean, aurreko paragrafoan adierazitako erakunde akreditatuaren esku-hartzea, hala badagokio, poluituta egon litezkeen eraikuntzetara mugatuko da, baldin eta eraikinon eraispenean sortutako hondakinen trazabilitatea bermatzen bada.

9. Amaierako kudeaketa-txostenak 7. paragrafoan aipatutako obra bat aipatzen duenean, Eusko Jaurlaritzari bidaliko dio udalak, haren nahikotasuna ebaluatu dezan. Hilabete igarota erantzun-txostenik jaso ez bada, aldekoa dela ulertuko da.

10. Edozein kasutan ere, aurreko paragrafoan adierazitako aldeko txostenak (berriazkoa zein presuntziozkoa) ez du udalaren ebazpena baldintzatuko. Azken batean, hark hartuko du bermearen helmugaren inguruko erabakia.

14. artikulua Urbanizazio-proiektuen amaierako kudeaketa-txostena

1. Urbanizazio-proiektuak onartzeko ebazpenean amaierako kudeaketa-txostena aurkeztu beharko da, indarrean dauden arauak eskatzen duten edukia izan eta Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu beharko duena.



2. Hondakinak desegoki kudeatzen diren zantzuak aurkituz gero (bereiztean nahiz helmugan), ingurumen-erakundeari jakinarazi beharko zaio, egoki irizten dizkion neurriak har ditzan; horrek ez ditu alde batera utziko bideen garbiketa edo bestelakoen gaineko eskumenei jarraikiz udalak ezar ditzakeen zehapenak.

15. artikulua Bermea itzultzeko eskaera

1. Hondakinen ekoizleak BERAZ bulegoan edota egoitza elektronikoan eskatu beharko dio eratutako bermea itzultzeko. Dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu horretarako:

- Eskaera-orria.
- Eratutako bermearen frogagiria.
- Amaierako kudeaketa-txostena, egindako kudeaketa-eragiketak egiaztatzeko dokumentuak barne.

2. Nolanahi ere, obrak gauzatzeko epea amaitu eta sei hilabete igarota, emandako lizentzia edo luzapenen arabera, amaierako kudeaketa-txostena aurkezteko eskatuko dio udalak lizentziaren titularrari (pertsona zein erakunde bat), egindako kudeaketa-eragiketak egiaztatzeko dokumentu guztiak barne.

3. Hilabeteko epean errekerimendu hori betetzen ez bada, eta horren ondorioz ezar litezkeen zehapenak gorabehera, bermea exekutatu ahalko du udalak, interesdunari entzun ostean.

16. artikulua Bermea itzultzeko proposamena

1. Udaleko zerbitzu teknikoek bermeak itzultzeko eskaerei lotutako txostenak egingo dituzte, hirigintza-lizentzia behar duten obren amaierako kudeaketa-txostenak ebaluatu ostean, eta kontuan hartuta indarrean dauden arauak xedatutakoari jarraikiz egiaztapenerakundeek igortzen dituzten txostenak.

2. Txosten teknikoek bermearen itzulketa arrazoituta proposatu beharko dute, enpresa edo pertsona sustatzaileak egiaztatzen duenean hondakinen kudeaketa egokia egin dela, udaleko zerbitzu teknikoek iritziz hondakinak kudeatzeko azterlanean aurreikusitakoekin arrazoizko neurri batean bat datozen kantitateetan. Bat-etortze horrek ez du zertan zehatza izan; aldiz, kasu bakoitzean hondakinen ekoizleak aurkezten dituen egoerak eta justifikazioak aztertuko dira.

17. artikulua Errekerimendua

1. Kudeaketa-azterlaneko aurreikuspenei dagokienez amaierako kudeaketa-txostenean dauden desbideraketak nahikoa justifikatzen ez badira, falta diren hondakinak akreditatzeko eskatuko zaio pertsona edo erakunde sustatzaileari, horretarako hamar eguneko epea emanda.



2. Pertsona edo erakunde sustatzaileak ematen duen informazio osagarria jaso ostean, bermea itzultzea proposatuko dute zerbitzu teknikoek, betiere hondakinen kudeaketa behar bezala justifikatuta dagoela irizten badiote.

3. Aldiz, hondakinen kudeaketa egokia akreditatuta ez dagoela irizten badiote, bermeaz inkautatzea proposatuko dute, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat.

18. artikulua Bermea exekutatzeko proposamena

1. Txosten teknikoak arrazoituta proposatu beharko du bermea exekutatzea, eta hurrengo ataletan adierazitako elementuak zehaztu beharko ditu.

2. Alde batetik, bermatutako zenbateko osoaz inkautatzeko egokitasuna azaldu beharko da; inkautazioa partziala izanez gero, arrazoa azaltzeaz gainera, exekutatu beharreko zenbatekoa ere justifikatu beharko da:

a) Exekuzioa osoa izango da ezein hondakinen helmuga justifikatzen ez denean, edota hondakin guztiak edo batzuk obra egiten den lekuan edo udalerriko beste edozein puntutan utzi direla egiaztatzen denean.

b) Gainerako kasuetan, partziala izango da, eta sustatzaileak helmuga egiaztatu ez duen hondakinen kudeaketa integralak (bereiztea, biltegitratzea, kargatzea, garraiatzea eta tratatzea) udalari eragingo liokeen kostua izango da zenbatekoa.

3. Inkautatutako bermearen xedea: hondakinen kudeaketa subsidiariora bideratu ahalko da, edota udalerrian ingurumena hobetzeko neurriak exekutatzera.

19. artikulua Ebazpena

1. Bermea exekutatzearen inguruko ebazpena eman baino lehen, hamar egunez entzunaldia emango zaio hondakinen ekoizleari, eta egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahalko ditu hark.

2. Eskaera egiten denetik hiru hilabeteko epean, ebazpena eman eta interesdunari jakinarazi beharko zaio. Prozedura gelditu bada interesdunari egotz dakiokeen arrazoiaren batengatik, ebazpena ebazteko eta jakinarazteko epearen zenbaketa eten egingo da. Adierazitako epea igarota, aldeko ebazpena eman dela ulertu ahalko da.

3. Aurreko atalean aipatutako epea igarota,

- Eskudirutan edo zor-baloreetan eratutako bermeen kasuan, epe hori bukatutakoan, bermearen zenbatekoa itzuli beharko du udalak, gehi aipatu epea bukatzen denetik bermea itzuli den arteko aldiari dagokion diruaren legezko interes-tasak, baldin eta bermea ez itzultzeko arrazoa udalari egotz badakioke.



- Abal edo kauzio-aseguruen bidez eratutako bermeen kasuan, udalak itzuli beharko ditu, eta interesdunak itzuli arteko aldiari dagozkion bermeen kostuak erreklamatu ahalko ditu.

20. artikulua Jarduketa, hondakinak aurkitzen diren kasuetan

1. Hondakin guztiak edo zati bat obra egin den lekuan nahiz udalerriko beste edozein puntutan utzi badira bermea erabat exekutatu ostean, udalak kudeatu beharko ditu horiek.

2. Aipatutako lekuetan aurkitutako hondakinen kudeaketaren kostua **80.2.a) artikulua**ren arabera kalkulaturikoa baino txikiagoa balitz, udalerrian ingurumena hobetzeko jarduketetara bideratuko da diferentzia. Bermearen guztizkoa osatu arteko gainerako zenbatekoa interesdunari itzuliko zaio.

3. Aurkitutako hondakinen kudeaketaren kostua bermearena baino handiagoa balitz, premiamendu-bidea erabilita erreklamatu da aldea.

21. artikulua Jarduketa, hondakinak aurkitzen ez diren kasuetan

1. Amaierako kudeaketa-txostenean akreditatu gabeko hondakinak aurkitzen ez direnean, exekutaturako bermearen zenbatekoa udalerrian ingurumena hobetzeko jarduketak gauzatzera bideratuko da.

3. kapitulua. Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondorioz sortutako hondakinak.

22. artikulua Hondakinen xedea

1. Obra-lizentziaren esleipenean, interesdunak proposaturako xedearen arabera zehaztuko da hondakinak kudeatzeko modua. Honela egin ahalko da kudeaketa:

- Garbigune batean: A Landabaso Industrialdean kokaturiko bilketa zentroa da eta bertan material hauek eraman daitezke: obra hondakinak, altzariak, etxetresna elektrikoak, egurra, ibilgailuen gurpilak, bateriak, radiografiak, lanpara fluoresxenteak, telefono mugikorrak, etab.

- Kudeaketa-enpresa baimendu baten bidez.

2. Edonola ere, hondakinen lagapena dokumentu frogagarri batean jaso beharko da.

23. artikulua Hondakinak bereiztea



1. Obrak hasten direnetik bertatik bete beharko dira gutxieneko bereizte-baldintzak, hondakin-kategoria horiek banan-banan bereizi, biltegitatu eta kudeatuta:

- Hondakin arriskutsuak.
- Hormigoiz, adreilu, baldosa, harri eta zeramikazko hondakinak (sabai aizun, moldura eta paneletako igeltsua izan ezik, gainerako harrizko materialen zenbait aprobetxamendu galarazten ditu eta).
- Amiantodun hondakinak.
- Gainerako hondakinak (igeltsua barne).

2. Obraren tamaina aintzat hartuta, baldintza zorrotzagoak ezarri ahalko dira lizentzian.

3. Obra txikietatik ateratako zuntz-zementuzko edo amiantoazko hondakinak desinstalatu eta garraiatzeko prestatu behar dira eta Amiantoaren Arriskua duten Enpresen Erregistroan inskribatutako enpresek kudeatu beharko dituzte (AAEE1), 396/2006 ERREGE DEKRETUAari, martxoaren 31koari, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanpostuei aplikatzeko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituenari jarraiki.

1 Amianto Arriskua duten Enpresen Erregistroan izena emandako enpresen zerrenda:
http://www.euskadi.net/contenidos/informacion/6173/es_2282/adjuntos/REGISTRO_AMIANTOEUSKCAST.pdf

Zabortegei baimenduen zerrenda, zeinean amianto aglomeratuaren hondakinak onartzen dituztenak

zehazten baitira: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/es/contenidos/informacion/resid_no_peligrosos/es_1005/adjuntos/vertederos.pdf

2 396/2006 ERREGE DEKRETUA, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua dagoen

lanetan aplikagarri diren gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzei buruzkoa:

<http://www.boe.es/boe/dias/2006/04/11/pdfs/A13961-13974.pdf>

3. kapitulua. Udal-obrak

24. artikulua Agregakin birziklatuak erabiltzea

Agregakin-kontsumoa eragiten duten eta udalak sustatutakoak diren obretan, kudeaketa-erakunde baimendutik datorren ahal adina material birziklatu erabili beharko da, betiere materialok bideratuko diren erabilerei buruzko indarrean dauden arauetan ezarritako preskripzio tekniko eta ingurumenekoen arabera.

25. artikulua Hondakinen kudeaketa udal-obretan



1. Udal-obrei buruzko hondakinak kudeatzeko azterlanaren idazketan prebentzio-, bereizteeta birziklapen-helburuak txertatuko dira. Kontratatistak horiek erdietsi beharko ditu, eta, hala izango ez balitz, udalak zigorrak ezarri ahalko ditu.
2. Udal-obrek hondakinak kudeatzeko plan bakarra izan beharko dute, kontratista nagusiak aurkeztuko duena eta ondoren, udalak hura onartuta, kontratu-izaera izango duena. Planean hondakinak kudeatzeko azterlanean ezarritako helburuak nola lortuko diren azaldu beharko da.
3. Ezarritako helburuak gainditzea hobekuntza gisa hartuko da obrak esleitzeko prozesuan.
4. Obrak amaituta, kontratista nagusiak amaierako kudeaketa-txostena aurkeztu beharko du, indarrean dauden arauak eskatzen duten edukia izan eta Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu beharko duena. Planean hondakinak kudeatzeko azterlanean ezarritako helburuak zenbateraino erdietsi diren azaldu beharko da.
5. Kontratista nagusiak (pertsona edo erakunde bat izan) azpikontraten jarduketa koordinatu eta gainbegiratu beharko du, hondakinak kudeatzeko plana betetzen dela bermatzeko.
6. Ezarritako helburuak ez betetzea nahiz hondakinen kudeaketa ez egiaztatzea kontratuaren urraketa gisa hartuko dira.
7. Aurrekoaz gain, hondakinen kudeaketa desegokia eginez gero, ingurumen-erakundeari jakinaraziko zaio, beharrezko neurriak har ditzan.

7. titulua – Ikuskapena, kontrola eta zehapenak

1. kapitulua. Ikuskapena eta kontrola

26. artikulua Ikuskatze-zerbitzua

1. Hauexek arduratuko dira ordenantza honetan ezarritakoa ikuskatu eta zaintzeko funtzioak gauzatzeaz: ingurumenaren alorreko eskumena duen sailari atxikita dauden eta aipatutako funtzio horiek esleituta dituzten langileak, eta udaltzainak.
2. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, izendatu den zerbitzu eskuduneko teknikarien zeregina ikuskatu ahalko dute.
3. Bere eskumenak gauzatu bitartean, beste udal-zerbitzu batek ordenantza hau betetzen ez dela hautemango balu, zerbitzu eskudunari jakinaraziko dio.



4. Egindako ikuskatze-bisitak ikuskatze-aktetan gauzatuko dira. Jardun duen pertsonak sinatuko ditu, eta pertsona edo erakunde interesdunari kopia bat emango zaio. Akta horiek, era berean, indarrean dauden legeek ezarritako eskakizunak beteko dituzte eta egiatasunpresuntzioa izateaz gainera, froga gisa balioko dute, pertsona edo erakunde interesdunek, beren eskubide eta interesak defendatzeko, aurkez litzaketen gainerako frogak gorabehera.

27. artikulua Ikuskatze-zerbitzuen izaera

1. Indarrean dauden legeekin bat, aurreko artikuluan aipatutako langileak, beren ikuskatze-funtzioen barruan, bai eta udaltzainak ere, agintaritza-agentek izango dira, eta dagokien akreditazioa dutela, aurrez jakinarazi gabe sartu ahalko dira ordenantza honetan araututako jarduerak garatzen diren instalazioetara.

2. Era berean, hondakin-edukiontzien edukia ikuskatu ahalko dute.

28. artikulua Lankidetzarako betebeharra

1. Hondakinen jabe, ekoizle nahiz kudeatzaile diren pertsona edo erakundeak instalazioetara sartzen utzi eta erraztu beharko diete funtzionarioei, bai eta haiek in lankidetzan aritu eta haiek beren ikuskatze-lanak egiteko eskatzen dituzten dokumentu guztiak eman ere.

29. artikulua Laguntza teknikoak

1. Udalak kontrol-lanak egin ahalko ditu kanpoko pertsona fisiko nahiz juridikoen laguntzaz. Horiek beren jarduketa guztiei buruzko txostena egingo dute, eta behatutako gertakariak material grafikoen bidez dokumentatuko dituzte.

2. Kontrol horien emaitza salaketa moduan hartuko da, egoki litezkeen zehapen-prozedurak ofizioz irekitzeari dagokionez.

2. kapitulua. Arau-haustek eta zehapenak

30. artikulua Erantzuleak

1. Erantzuleek beren gain hartu beharko dituzte ordenantza honetan adierazitako betebeharrak ez betetzearen ondoriozko erantzukizunak, euren ekintzetan jatorria dutenak ez ezik, beren ardurapean dituzten pertsonen ekintzetan jatorria dutenak ere bai.



2. Ordenantza honetan ezarritakoari dagokionez, indarrean dauden legeekin bat, arduradun titular bat izango dute beti hondakinek, eta beren jabe, ekoizle zein kudeatzaile diren pertsona edo erakundeei egokituko zaie kargu hori.

3. Administrazio-erantzukizunetik salbuetsita geratzeko, dagozkion ordenantzak eta gainerako arau aplikagarriak betez entregatu beharko zaizkio hondakinak udalari, edota hondakinak kudeatzeko eragiketak egiteko administrazioaren baimena duten pertsona edo erakundeei hondakinak laga, Ordenantza honetan jasotakoarekin bat, eta lege eta araudien betekizunak betez.

4. Erantzukizuna solidarioa izango da hondakinen jabe, ekoizle eta kudeatzaile diren pertsona edo erakundeei hondakinak arau aplikagarrietan adierazitakoei ez beste pertsona fisiko edo juridikoei entregatuz gero, edota erantzule diren pertsona edo erakundeak egon arren, ezinezkoa suertatuz gero horietako bakoitzak arau-haustean izandako partaidetzamaila zehaztea.

31. artikulua Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa

1. Arau-hauste arinak urtebete igarota preskribatuko dira, larriak hiru urte igarota eta oso larriak bost urte igarota.

2. Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau-haustearen preskripzio-epea.

3. Arau-hauste jarraituen kasuan, arau-hausteaosatzen duen jarduera edo azken egintza amaitzen den unean hasiko da zenbatzen preskripzio-epea. Arau-hausteaosatzen duten gertakari edo jarduerak ezezagunak badira kanpo-aztarnarik uzten ez dutelako, gertakari edo jarduerak agerian geratzen direnean hasiko da epea zenbatzen.

4. Zehapen-prozedura interesduna jakitun dela hasteak preskripzioa eten egingo du; preskripzio-aldiari berrekin egingo zaio zehapen-espedientea hilabete baino gehiagoz geldiarazita baldin badago ustez arduraduna den pertsona edo erakundeari egotzi ezin zaion kausagatik.

5. Arau-hauste arinen ondorioz ezarritako zehapenak urtebete igarota preskribatuko dira, arau-hauste larrien ondorioz ezarritakoak hiru urte igarota eta arau-hauste oso larrien ondorioz ezarritakoak, berriz, bost urte igarota.

6. Zehapenen preskripzio-epea zehapena jartzeko erabakia indarrean hasten den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

7. Preskripzio-epearen zenbaketa geratu egingo da, betearazteko prozedura hasiz gero, pertsona edo erakunde interesduna jakitun dela. Arau-hausteari ezin egotz dakioken



arrazoiren bat dela-eta prozedura hori hilabetetik gora geldirik badago, jarraitu egingo da epea zenbatzen.

32. artikulua Jatorrizko egoerara itzularazteko betebeharra

1. Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzeagatiko arau-hausteen ondoriozko erantzukizunez gainera, aldatutako elementuak jatorrizko egoerara itzularazteko eskatu ahalko zaio arau-hausleari.
2. Hori egiten ez bada, udalak gauzatuko du itzulketa subsidiarioki. Arau-haustearen erantzuleak bere gain hartuko ditu egin beharreko jarduketek sortutako gastuak, eta, era berean, eragindako kalte eta galerei dagokien kalte-ordaina emateko eskatuko zaio.
3. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kasuan, kostu eta kalte-ordain horiek 12. artikulua aipatutako bermea exekutatuta berreskuratu ahalko dira.

33. artikulua Zehapen-prozedura

1. Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteei dagozkien administraziozko zehapen prozedurak otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoari jarraikiz izapidetuko dira (lege hori Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zehapen-ahalmenari buruzkoa da).
2. Alkateza izango da zehapen-eskumena izango duen organoa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.n) artikuluari jarraikiz.

34. artikulua Administrazioaren arau-hausteak

1. Administrazioaren arau-hauste gisa hartuko dira ordenantza honetan ezarritakoa urratzen duten egintzak edo ez-egiteak, bai eta ordenantzan jasotako gaiak arautzen dituzten estatuko zein autonomia-erkidegoko legerian tipifikatuta dauden egintzak edo ezegiteak ere; hori gorabehera, ordenantza honetako manuek arau-hausteak zehatzago identifikatzen lagundu ahalko dute.
2. Administrazioaren arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat.

35. artikulua Arau-hauste arinak

1. Jokabide hauek hartuko dira arau-hauste arintzat:
 - a) Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak bide publikoan, edukiontzietatik edo kasuan kasuan xedatutako lekuetatik kanpo uztea.
 - b) Bide publikoa eraikuntza eta eraispenerako hondakinekin zikintzea.



- c) Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak edukiontzietan utzi daitezkeen ordutegiak ez errespetatzea.
- d) Edukiontzia bide publikotik kentzeko egutedi edota ordutegia ez errespetatzea.
- e) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzia edo zakuak ez estaltzea, ordenantza honen arabera nahitaezkoa izanik.
- f) Edukiontzi edota ibilgailuetako ertzek mugatzen duten planoa gainditzea, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak utzi nahiz garraiatzeko orduan.

2. Era berean, arau-hauste arina izango da ordenantza honetan ezarritako beste edozein debeku ez betetzea, edota horrek behartzen dituen ekintzak ez egitea, baldin eta arauhauste larri edo oso larritzat hartzen ez badira, hurrengo artikuluei jarraikiz.

36. artikulua Arau-hauste larriak

1. Jokabide hauek hartuko dira arau-hauste larritzat:

- a) Bide publikoaren inguruko garbiketa-betebeharrak ez betetzea eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzi edo zakuak ordeztu edo kentzeko orduan.
- b) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzia edo zakuak ez kentzea, udalzerbitzuek hala eskatzen dutenean ingurumeneko edo zirkulazioko arrazoiengatik edo bide publikoan ekitaldiren bat egiteagatik.
- c) Edukiontzia edo zakuak instalatzea, bide publikoa okupatzeko baimenik gabe.
- d) Hondakinak deskargatzea edota eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzia edo zakuak manipulatzeko, baimendutako ordutegitik kanpo.
- e) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak desegoki bereiztea.
- f) 25 cm baino gehiago gainditzea edukiontzi edota ibilgailuetako ertzek mugatutako planoa, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak utzi nahiz garraiatzeko orduan.
- g) Edukiontzien edo ibilgailuen altuera handitzea elementu osagarriak baliatuta, baldin eta horrek arrisku larrikeria eragiten ez badie pertsonari.
- h) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak baimendu gabeko leku batean metatzea edo isurtzea, baldin eta hori arau-hauste oso larria ez bada.
- i) Hondakin arriskutsuak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzi edo zakuetan uztea, behar bezala bereizi gabe.
- j) Garraio-eragiketarako bitartean eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak erortzea.
- k) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko eskatzen den finantza-bermea ez eratzea.
- l) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinei buruzko amaierako kudeaketa-txostena ez aurkeztea, hala eskatzen den kasuetan.
- m) Udalaren ikuskatze- edo kontrol-lanak oztopatzea edo eragozteak.
- n) Urtebetean bi arau-hauste arin edo gehiago egitea.

37. artikulua Arau-hauste oso larriak

1. Jokabide hauek hartuko dira arau-hauste oso larritzat:



- a) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak baimendu gabeko leku batean metatu edo isurtzea, pertsoneri edo ingurumenari arrisku larria eraginez.
- b) Amiantodun hondakinak utzi, metatu, biltegitatu, isuri edo deuseztatzea instalazio baimenduetatik kanpo edota kudeatzaile baimendurik gabe.
- c) Edukiontzien edo ibilgailuen altuera handitzea elementu osagarriak baliatuta, pertsoneri arrisku larria eraginez.
- d) Gurpilak garbitzeko gailuak edo erraztatzeako ekipak instalatzeko betebeharra ez betetzea, udalak hala eskatuagatik.
- e) Urtebetean bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

38. artikulua Zehapenak

1. Artikulu honetako hurrengo paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, eta salbu utzita egoki litekeen zigor-erantzukizuna edo erantzukizun zibila, ordenantza honetako aginduen arauhausteei dagozkien zehapenak ezartzeko, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 141. artikulua hartuko da oinarri:

- a) Arau-hauste oso larriak: 1.501,00 eurotik 3.000,00 eurora bitarteko isunak.
- b) Arau-hauste larriak: 751,00 eurotik 1.500,00 eurora bitarteko isunak.
- c) Arau-hauste arinak: 750,00 eurorainoko isunak.

39. artikulua Zehapenen mailak ezartzeko irizpideak

Zehapenaren zenbatekoa erabakitzeak aintzat hartuko dira hura jartzea eragin zuten ekintzetan eman diren gorabeherak, hala nola arau-haustearen izaera, zer kalte eragin den, zenbat aldiz egin den, nahitasun-maila, jarduketarekin lortutako kostu-aurrezkia, bai eta aringarritzat edo larrigarritzat jo daitezkeen erantzulearen bestelako alderdiak ere.

40. artikulua Behin-behineko neurriak

1. Indarrean dauden arauak aplikatuta, ematen den ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko egokitzen jotzen diren behin-behineko neurriak hartu ahalko dira, barne hartuta aldi baterako esku-hartzea eta materialak kentzea.

2. Behin-behineko neurriek ez dute zehapen-izaerarik edukiko, aplikagarria den araudian aurreikusitakoak izango dira, eta, edozein kasutan ere, saihestu nahi den kaltearekiko proportzionalak izan beharko dira. Hona hemen adibide batzuk:

- a) Kaltea ez luzatzeko zuzentze-, segurtasun- edo kontrol-neurri egokiak jarraztea.
- b) Aparatu, ekipo edo ibilgailuak prezintatzea.
- c) Saltokia aldi baterako, zati batean edo osorik ixtea, edota obra geldiaraztea.
- d) Jardueran aritzeko baimena edo obra gauzatzeko lizentzia aldi baterako etetea.

Azken xedapen iragankorra



Ordenantza hau indarrean sartzen denetik hasita, 6 hilabeteko epea egongo da Udalean jarritako bermeen itzultzea eskatzeko, beti be obrak eginda eta bukatuta badaude. 6 hilabeteko epea igarota, Udalak fidantza exekutatu ahal izango du, pertsona interesdunari entzunaldia eman eta gero.

Azken xedapen bakarra

Ordenantza hau indarrean hasiko da testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko argitaratzen denetik zenbatzen hasita hamabost egunera.

